

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Errepideetako izotzaren aurka gatza erabiltzea kaltegarria izan daiteke?

OTSAILEKO LEHEN HAMABOSTALDIAN Europa osoa izotzaren pean bizi izan da. Estatu gehienetako albistegietan gatz biltegiak erakutsi dituzte; bertako gatza erabili izan da izotzaren aurkako borrokan. Eta batek baino gehiagok galde egin dit: “Aizu, hainbeste gatz erabiltzeak ez al du eragin kaltegarririk izango?”.

Itsasertzean bizi garenok jakin badakigu etxeetako leihoak eta hormak nola jaten dituen itsasoko kresalak. Gatz asko duten lurrak oso idorrak izaten dira eta landare-espezie batzuk baino ez dute bizitzerik horietan. Hori esanda, garbi dago gatzak eragina baduela eta beraz, errepideetan botatakoak errepide-inguruko lurretan, zubietako zutabeetan edota gure ibilgai-luetan eragina, handia edo txikia, izan dezakeela.



Baina berdina da egoera Kanadan eta Euskal Herrian, esaterako? Berdina da euskal Pirinioen lurretan eta euskal itsasertzeko hiri eta herrietan? Kanadan bospasei hilabete izozpean igarotzen dituzte; euskal itsasertzean zaila izango da aste pare bat baino gehiago igarotzea. Horrek berebiziko garrantzia du gatzaren eragina neurtzeko, aste pare batean botatzen den gatzaren eragina ezin baita alderatu sei hilabetetan botatzen denarekin.

Beraz, artikuluko izenburuko galderaren erantzuna ez da ez “bai”, ezta “ez” ere. Erantzuna, leku bakoitzaren egoeraren arabera da. Euskal Herriari dagokionez, populazio gehiena biltzen den lekuetan gatzaren eragina nabariezina izango dela esatea zilegi iruditzen zait, eta aldiz, mendikate inguruetan bizi direnek pixka bat igarri ditzaketela ondorioak, baina ez askorik ere.



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Nano-belarria mikrobioak entzuteko

Ikerlari aleman batzuek eraiki duten gailuaren bidez zelula barruko soinuak entzun daitezke. Giza belarria baino milioi bat aldiz sentikorragoa da tresna, eta ADNaren errepikapenak eta zatiketa zelularrak entzun eta ezagutzeko aukera eskainiko du.

<http://ttiki.com/35175> (Frantsesez)

Gruyère gatzaren egitura kopiatzan

Espainiako CSIC erakundeak temperatura altuko supereroaleak diseinatu ditu gruyère gatzaren egitura kopiatzan, hau da, materialaren azalean zulotxoak eginez. Era horretara kobreak bidez garraiatzen dena baino 100 aldiz handiagoak diren korrante elektrikoak garraia daitezke.

<http://ttiki.com/35176> (Gaztelaniaz)

Artozko krispetak, antzinako jakia

Artoaren laborantza orain 9.000 urte Mexikon hasi zela uste da; handik, pixkanaka, mundu osora zabaldu omen zen. Peruko iparraldeko itsasertzean berriki egindako arkeologi hondeaketetan, orain dela milaka urte artoz egindako hainbat jakiren aztarnak aurkitu dituzte, tartean krispetak.

<http://ttiki.com/35177> (Gaztelaniaz)